Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aginduari erantzuten dio.

Legealdi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango diren esku-hartze ildoak eta gidalerroak zehaztuko dira.

Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere planak edo jarduera-programak egingo ditu, plan orokorrarekin lerrokatuta.

**Xedea:** balioak aldatzea

## Oinarri-irizpideak:

- Paradigma feminista
- Genero-ikuspegia
- Intersekzionalitatea
- Emakumeen ahalduntzea
- Giza garapen jasangarria



## Bermeak:

- Benetako konpromiso politikoa
- Beharrezko aurrekontu eta giza baliabideak eta baliabide teknikoak
- Gardentasuna eta kontuak ematea
- Emakumeen eta herritarren parte hartzea eta solasaldia
- Erakundeen erantzunkidetasuna eta elkarren arteko lankidetza

Informazio gehiago:
**EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana**

**BERDINTASUNA**

Berdinetik berdinera, zalantzarik gabe.

## Informazio gehiago nahi duzu?

**945 016 361**
**berdintasuna-enplegua@euskadi.eus**

# Emakumeen eta gizonen **BERDINTASUNERAKO** plana

**BERDINTASUNA**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

# BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila berdintasun politikekin konprometitua dago. Konpromiso eta lidergo politiko horren erakusgarri da lantaldea, erakundean bertan berdintasun printzipioa txertatzeko eta garatzen dituen politiketan berdintasuna bultzatzeko sortua. Lantalde hori, Berdintasunerako Unitate Administratiboak eta Saileko lantalde Teknikoak (zuzendaritza bakoitzeko hainbat lankide) osatzen dute.

## GOBERNU ONA

### KONPROMISO POLITIKOA

- Berdintasunari buruzko araudia
- Berdintasunerako aurrekontuak
- Berdintasunerako plangintza
- Berdintasunerako unitatea indartzea

### BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA

- Teknikariak eta politikariak berdintasun alorrean trebatzea

### GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN

- Estatistikak eta azterlanak genero-ikuspegiarekin
- Hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak
- Berdintasunezko komunikazioa
- Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea
- Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea
- Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea
- Berdintasunerako klausulak sartzea kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan

### KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA

- Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea

### PARTE HARTZEA ETA ERAGINA

- Zuzendaritza-organoetan edo organo pluripertsonaletan ordezkaritza orekatua
- Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia

## ESKU-HARTZEKO ARDATZAK

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana.

### ENPLEGUA ETA GIZARTERATZEA

- Emakumeen enplegagarritasuna eta lan-baldintzak hobetzea
- Soldata-arrakala murriztea
- Pobrezia eta/edo gizarte-bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden emakumeen kopurua murriztea

### GAZTERIA

- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak prebenitzeko sentsibilizatzea
- Balioen aldaketa sustatzea

### GIZARTE ZERBITZUAK

- Indarkeriaren biktimak diren emakumeei atentzio integrala bermatzea
- Etxerik gabeko pertsonen, zahartze aktiboaren, hirugarren sektore sozialaren eta boluntzariotzaren estrategietan berdintasuna bultzatzea
- Senide zaintzaileei laguntzeko estrategia

### FAMILIA POLITIKA ETA ANIZTASUNA

- Familiei laguntzeko IV. Plana (kontziliaziorako laguntzak, erantzunkidetasun handiagoa...)
- Eraberean. Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Sarea
- Indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatu eta horien antzemate goiztiarra handitzea

**Berdinetik berdinera, zalantzarik gabe.**